Udalak Mimarte zirkuitua martxan jarri du berriro, gazteen artean alkohol-kontsumoa prebenitzeko

Peter Robertsen mimo-ikuskizuna Mundaizen hasiko da, azaroaren 3an, eta, gero, hiriko hainbat ikastetxetara joango da, azaro eta abenduan.

Azaroaren 3an, Donostiako Udalak abian jarriko du Mimarte zirkuituaren beste edizio bat. Alkohol-kontsumoa prebenitzeko ekimen bat da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) eta Derrigorrezko ondoko hezkuntzako 12 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Lehenengo emanaldia Mundaiz ikastetxean izango da, eta programak azaroan eta abenduan jarraituko du, Donostiako hainbat ikastetxetan.

Mimartek mimoa, umorea eta eguneroko egoeren irudikapena erabiltzen ditu alkohol-kontsumoari eta horri lotutako arriskuei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzeko. Ekimenaren barruan sartzen da, baita ere, emanaldiaren ondoren eztabaida bat egitea eta irakasleei hezkuntza-materiala ematea, ikuskizunean landutako gaiak ikasgelan lantzen jarraitzeko.

Iñigo García Ingurumeneko zinegotziak nabarmendu du oso garrantzitsua dela prebentzioa txikitatik lantzea eta mezuak gazteen errealitatera egokitzea. "Alkohol-kontsumoaren prebentzioak informazioa ematea baino zerbait gehiago eskatzen du. Garrantzitsua da esparruak sortzea gazteek ikus dezaten eguneroko egoeretan nola jokatzen duten, egoera horien gainean gogoeta egin dezaten eta hartzen dituzten erabakiei buruz naturaltasunez hitz egin dezaten", adierazi du.

Ekimenak gorputz-hizkuntza eta arte-adierazpena erabiltzen dituen partaidetza-formatu baten aldeko apustua egiten du, eta gizarte-harremanak eta taldearen presioa ere lantzen ditu. Ikuskizunaren helburua da ikasleek jokabide eta egoera arriskutsuak identifikatzen ikastea, prebentzio-mezu tradizionaletara soilik jo gabe.

Ekimena Udalak, 2018tik, Alkoholaren Mahaiaren bidez gauzatzen duen lanaren barruan kokatzen da. Udal sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazio-gune bat da, prebentziora eta hezkuntzara bideratua, bai eta gazteen artean alkoholaren eskaintza eta eskaria murriztera ere, aisialdiko esparruei arreta berezia eskainita.

Ikastetxez ikastetxeko ibilbidea

Prentsa oharra
Nota de prensa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Dataren bat zehazteko dago oraindik. Hauek dira jada ezarritako egun eta ikastetxeak:

Azaroa
26/11/03 08:30 Donostia, Mundaiz ikastetexea
26/11/04 09:30 Donostia, Zubiri Manteo BHI
26/11/04, 11:45 Donostia, Zubiri Manteo BHI
26/11/16 Donostia, San Patricio
26/11/25 09:00 Donostia, La Asunción Ikastetxea
26/11/30 10:30 Donostia, Martutene Lanbide Eskola, Egia Kultur Etxean

Abendua

26/12/09 Herri Ametsa Ikastola
26/12/16 9:15 Donostia, Peña Florida BHI
26/12/16 11:15 Donostia, Peña Florida BHI
26/12/17 9:15 Donostia, Peña Florida BHI
26/12/17 11:15 Donostia, Peña Florida BHI